

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Amurrioko udal-plangintzako arau subsidiarioetan Lezamako Txibiarte eremuko basoa babesteko gunea mugatzeko egindako akats materialaren zuzenketa onartzea. 201902S871 espedientea

Udalbatzak, 2020ko apirilaren 30ean egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Amurrioko udal-plangintzako arau subsidiarioetan Lezamako Txibiarteko basoa babesteko eremua mugatzeko akats materiala zuzentzeko espedientea onartu zen.

Nekazaritza eta basozaintzako lurralde-plan sektorialaren antolamendu-planoen arabera, zuzenketa egiteko arrazoia da, berez, zuhaixka-, sastraka- edo belar-espezieak dituen mendi-eremu bat dela, baina ez duela zuhaitz-estalkirik. Beraz, ez du betetzen indarrean dagoen plangintzak basoak babesteko eremuan sartzeko zehaztutako funtsezko baldintza, hau da, "zaindu beharreko baso-espezieek (hostozabalak) okupatuta egotea, mantendu nahi direnak"

Denek jakin dezaten argitaratzen dena.

Amurrio, 2020ko maiatzaren 11

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA